


DEI programa: Dibertsitate, Ekitatea eta Inklusioa



BIOSPHERE



GLOBAL
DESTINATION
SUSTAINABILITY
MOVEMENT

 Bilbao Convention Bureau

Aurkibidea

Sarrera	4
Berdintasun- eta dibertsitate-politiken testuinguru arauemailea	7
Konpromisoa eta ibilbidea	10
Helburuak eta xedeak	12

(2026an berrikusitako dokumentua)

Dokumentu hau Bilbao Convention
Bureauko lantalde osoaren lankidetzari
esker prestatu da, eta lantalde osoak izan
du haren berri. Horiek horrela, zuzendariak
dokumentu hau onartzen eta sinatzen du

Kepa Olabarrieta



Sarrera

Dibertsitatea, ekitatea eta inklusioa hertsiki lotuta dauden hiru balio dira, eta Bilbao Convention Bureauan modu aktiboan defendatzen ditugu.

Dibertsitate, arraza, etnia, genero, sinesmen, sexu-orientazio eta neurodibertsitatearen ikuspegitik, erakunde gisa indartzen laguntzen digu, talentua irabazten dugulako eta erabakiak hartzeko kalitatea hobetu, bai eta langileen motibazioa eta zoriontasuna handitu ere.

Dibertsitatea, ekitatea eta inklusioa zaintzen dituzten enpresek erronkei aurre egiteko gaitasun handiagoa dute. Era horretan, DEI estrategia buruan, hobeto babestuko ditugu plantillaren premiak.



Berdintasun eta dibertsitate-po- litiken testuinguru arauemailea

BiCB, Bilbao Ekintzaren parte den heinean, gaur egun berdintasunaren, dibertsitatearen eta ekitatearen alde lan egiteko konpromisoa hartu du, honako hauek kontuan hartuz: arlo horri buruzko politika publikoak, udal-gobernuak gai horretan dituen lehentasunak eta Bilboko Udalaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako ordenantzaren printzipioak eta helburuak. Gainera, modu koherentean egiten du, Bilboko Udalaren jarduketara bideratuta, 2024-2028 aldian, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Planarekin bat etorritik, bai eta Bilboko Kulturarteko Hiria Udal Planarekin ere.

- **Arau-esparrua - Eremu autonomikoa**

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 4/2005 Foru Araua, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- Migraziorako Euskal Itun Soziala

- **Arau-esparrua - Tokiko eremua**

- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- Bilboko Udalaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako ordenantza.
- Bilboko Balioen Gutuna.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plana.
- Bilboko Kulturarteko Hiria Udal Plana.

Aipatutako araudiaz gain, honako hauek barne hartzen dira programan:

- Europako 2020-2025 aldirako Genero Berdintasunerako Estrategian zehaztutako xedapenak eta konpromisoak garatzea eta betetzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarri den bezala, bat dator Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezarritako lerro eta jarraibideekin, bereziki, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean jasotakoarekin.
- Horrez gain, estrategia bat dator Nazio Batuen 2030eko Agendaren garapen jasangarrirako helburuekin (GJH), bereziki, bi helburu hauekin: «Genero-berdintasuna lortzea» (5. GJH) eta «desberdintasunak murriztea» (GJH 10).



Konpromisoa eta ibilbidea

Bilbao Convention Bureau Bilboko Udalaren ordezkari bat da, eta, orduan, nabarmendu behar da emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak ezartzea inflexio-puntu bat izan dela 1988. urtean Emakumearen Zerbitzua sortu zenetik.

Ordutik eta bi hamarkada barne hartzen dituen aldian (1997-2023), berdintasunerako 5 udal-plan onetsi dira, eta, horrela, berdintasunaren alorreko udal-politiken esku-hartze eta lehentasunen lerroak modu argian definitu dituzten tresna dira.

Bilbao Convention Bureau, Bilbao Ekintzaren esparruaren baitan, barne-prozesuak etengabe hobetzea bilatzen duen kudeaketa-eredu bat bilatzen ari da, bai eta kudeaketa-elementu guztiei eta emaitzei arreta integrala eman ere.

Orain arte, kudeaketa-eredu bat izan dugu, pertsonak kudeatzeko jardunbide guztietan diskriminaziorik ezaren printzipioari formalki erantzuten saiatu dena.

Bat dator Bilboko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantzan ezarritako printzipio orokorrekin. Printzipio horiek Bilboko Udalak eta mendeko gainerako erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango duten jarduna zuzendu behar dute.

Printzipio orientatzaile gisa, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrak islatzen dira.

- Berdintasuna tratuan eta aukeretan.
- Dibertsitatekiko eta ezberdintasunarekiko errespetua.
- Genero-ikuspegiaren integrazioa.
- Ekintza positiboa.
- Sexuaren araberako rol eta estereotipoekin amaitzea.
- Ordezkaritza orekatua.
- Koordinazioa eta lankidetzak.

Helburuak eta xeddeak

Bilbao Convention Bureauren helburua DEI programa bat sortzea da, hainbat ekintza bilduko dituen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatzeko, enplegua lortzeko, prestakuntzarako eta lanbide-sustapenerako, laneko diskriminazio edo jazarpen oro saihesteko eta aniztasuna, ekitatea eta inklusioa lortzeko bidean ekintzak martxan jartzeko oinarriak finkatzeko.

Etengabe hobetzeko asmoa du, DEIren arloko ekintzak pixkanaka areagotzeko. Emaitzak urteko jasangarritasun-txostenean argitaratuko dira.

Helburua	Ekintzak	Adierazlea	Target	Noiz
Hornitzaileak Zerbitzuen lizitazioen bidez (adibidez, cateringa edo agentziak), aniztasun-, berdintasun- eta inklusio-politikak integratuta dituzten hornitzaileak kontratatzea.	2.1 Ingurumenaren eta gizartearen jasangarritasun-irizpideak barne hartzea Bilbao Convention Bureauren lizitazioetan. Turismo Etikoa zigilua duten enpresen kontratazioa sustatzea.	I.S.3 Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden kontratatutako pertsona kopurua		Une oro

Helburua	Ekintzak	Adierazlea	Target	Noiz
<p>Lankidetzaren GKEekin eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeekin</p> <p>BiCBren bozgorailu-rola erabiltzea Bilbon gizarteratzearen alde egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak sustatzeko.</p>	<p>3.1 Formarte, Gurutze Gorria, Theodora Fundazioa eta beste gizarte-erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, biltzarren antolatzaileen artean hirian eragin positiboa duten ekintzak sustatzeko.</p> <p>3.2 Laneratzeko politikak dituzten erakundeak, GKEak eta ekitaldi bat antolatzeari gizarte- eta ingurumen-onurak dakarzkieten elkarrekin ikusarazteko tresna jasagarrien portfolio bat sortzea.</p> <p>3.3 Eragin sozial positiboa eta legatua ekarriko dituen programa bat sortzea, Bilbon horrelako ekimenen garapena sustatuko duten prestakuntza eta proiektuekin.</p>	<p>I.S.3. Gizarte-bazterkeria egoeran dauden kontratatutako pertsona-kopurua</p> <p>I.S.3. Gizarte-bazterkeria egoeran dauden kontratatutako pertsona-kopurua</p> <p>I.S.5. Eragin positiboko ekintzak proposatu dituzten antolatzaileen %</p>	<p>Eragin positiboko ekintzak proposatu dituzten erakunde antolatzaileen kopuruari eustea</p>	<p>Une oro</p>
<p>Irisgarritasuna</p> <p>Bat etortzea Bilboko Udalak hiri-ingurunearen irisgarritasuna hobetzeko dituen helburuekin, arlo horretako ordezkarien balorazioa neurtuz eta emanez, irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiten jarraitzeko.</p>	<p>4.1 Inkesta digitalak sortzea, Bilboko kongresuetako parte-hartzaileen irisgarritasunaren arloko esperientzia ezagutzeko</p>	<p>I.S.3. Irisgarritasunarekiko konpromisoari buruzko adierazlea, kongresuetako ordezkarien arabera</p>	<p>Biltzarkideek hiri-ingurunearen irisgarritasunari buruz duten balorazioa handitze</p>	<p>Urtero, kongresuetan egiten diren inkestetan</p>

Helburua	Ekintzak	Adierazlea	Target	Noiz
<p>LGTBI programa</p> <p>Bilbao Bizkaia Action Groupi (BBAG) laguntzea turismo-sektoreko enpresei zuzendutako LGTBI programa garatu eta zabaltzeko lanetan. Programaren helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> LGTBI pertsonen defentsa sustatzen duten barne-politikak ezartzea Sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazio-egoera posibleak sentsibilizatzea, babestea eta modu aktiboan salatzea. 	<p>5.1 BBAG lantaldearen emaitzen jarraipen hurbila eta hedapena egitea, Bilboko MICE sektorean LGBTI+ Estrategia garatzen laguntzeko.</p> <p>Basquetourren QueerDestination programa eta LGBTQ+ turismorako sentsibilizazio-ikastaroa zabaltzea.</p> <p>Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden kolektiboen kontratazioaren sustapen-maila monitorizatzea, kongresuen antolatzaileen arabera</p>	<p>I.S.4. Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonen kontratazioaren sustapenari buruzko adierazlea</p>	<p>Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen kontratazio-ehunekoa handitzea</p>	<p>Urtero, kongresuetan egiten diren inkestetan</p>
<p>Kontratazioa</p> <p>Talentu-zorroan ordezkatuta ez dauden taldeen ordezkaritza handitzea</p>	<p>1.1 Bilbao Ekintzak sustatutako baremazio-sistema ezartzea, pertsona-talde horien kontratazioa errazten duena, eta urtero aplikatzea Gazte Enplegurako Planen kontratazioetan eta Lehen Lan Esperientziaren Programan.</p> <p>Aldeko puntuazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Familia-unitate bateko kide guztiak langabezian egotea Proiektu Berezietan parte hartu izana DSBERen titularra/onuraduna Emakumea 	<p>Irizpide horiek betetzen dituzten kontratatutako pertsona-kopurua</p>		<p>Urtero, irailetik azarora, langileen hautaketa egitean</p>




<https://bilbaoconventionbureau.bilbao.eus/>



bicb@bilbaoturismo.bilbao.eus



+34 944 79 57 70

 Bilbao Convention Bureau